

Hodeiak murrizten ari dira, eta klima-aldaketa areagotu dezake horrek

Hodeiak murrizten ari dira eta horrek eragin nabarmena du klima-aldaketan, NASAko ikertzaile-talde batek ondorioztatu duenez. Terra satelitearen datuak aztertuta, ikusi dute azken 20 urteetan, pixkanaka, baina etengabe, murriztu dela hodeien estaldura. Amerikako Batasun Geofisikoaren azken biltzarrean aurkeztu zuten [lana](#).



ARG.: derev /Pixabay

Hamarkada bakoitzeko hodeien estaldura % 1,5 murriztu dela kalkulatu dute, eta horrek ondorio esanguratsuak izan ditzakeela berotze globalean. Ikusi dute hodeien murriztea nabarmenagoa dela aire-korrante handiak elkartzen diren eskualdeetan, hala nola ekuatoretik gertu eta latitude ertainetan.

Ikertzaileek ez daukate argi zein den hodeien galararen arrazoia, baina emaitzek iradokitzen dute atmosferako zirkulazioaren eskala handiko aldaketak izan litezkeela. Argi dagoena da aldaketa bat gertatzen ari dela, eta ikertzaileek ohartarazi dute joera horrek jarraitzen badu klima-aldaketa areagotu lezakeela. ●

Sexismoak adineko emakumeetan galera kognitiboa eragiten duela frogatu dute

AEBn egindako ikerketa batean frogatu dutenez, estatu sexistenetan jaiotako emakumeek galera kognitibo handiagoa dute zahartutakoan, genero-berdintasun handiagoa duten estatuetakoe baino. Batzuen eta besteen arteko diferentzia 9 urte zahartzearen parekoa da, eta bereziki nabarmena da emakume beltzetan.



ARG.: Centre of Ageing Better/Pexels/CC.

Aurretik egindako beste ikerketa batzuek ere erakutsi izan dute matxismoak garunean eta kognizioan eragiten duela. Adibidez, [2023an PNASen argitaratutako ikerketa batean](#), 29 herrialdeko 7.876 erresonantzia magnetikotako irudiak aztertu zituzten, eta ondorioztatu zuten, genero-desoreka handia dagoen herrialdeetan, emakumeen garunen kortexa meheagoa dela gizonena baino. Aldiz, parekidetasun handiagoa dagoen herrialdeetan, ez da halako alderik nabaritzen kortexen lodieran. Emozioek eta traumek ez ezik, baldintza kaskarragoetan bizitzeak, baliabide material gutxiago izateak eta hezkuntza mugatuta izateak ere eragin zuzena dute garunaren garapenean.

AEBn egindako ikerketan ere faktore horiek berretsi dituzte, eta nabarmendu dute ondorioak areagotu egiten direla arrazakeria eta genero-diskriminazioa gurutzatzen direnean. ●